



Hau da aste honetako euskararen pilula!

"sanción" euskaraz, nola?

Sanción > zehapen

Horrela definitzen du **zehapen** Euskaltzaindiaren Hiztegiak:

zehapen: iz. *Zuz.* Legea hausteagatik ezarririko zigorra.

Azpisarrera gisa, **zehapen espediente** terminoa (expediente sancionador) aipatzen du hiztegi horrek, definizio eta guzti:

zehapen espediente, zehapen-espediente iz. *Admin.* Administrazioak abian jartzen duen prozedura, tipifikaturiko arau hausteren bat egin duenak dagokion zigorra jaso behar duen ala ez erabakitzeko egiten dena.

Bestalde, termino hauek ere familia berekoak dira:

sancionar > zehatu, zehapena ezarri

sanción disciplinaria > diziplina-zehapen, diziplinazko zehapen

sanción no pecuniaria > zehapen ez-diruzko

sanción pecuniaria > diruzko zehapen, diru-zehapen

sanción urbanística > hirigintza-zehapen

acuerdo sancionador > erabaki zehatzaile, zehapen-erabaki, zehatze-erabaki

potestad sancionadora > zehatzeko ahal

ADIBIDE BATZUK

- “Que, en atención a la necesidad de asegurar la efectividad de la **sanción** de expulsión que puede imponerse, procede el ingreso del/de la expedientado/a como medida cautelar durante la tramitación del expediente” > Ezar dakioken kanporatze-**zehapena** beteko dela segurtatzeko, bidezkoa da, kautela neurri gisa, espediente irekita duen pertsona barneratzea espedientearen izapideak egin bitartean”
- “Se impone a la parte impugnante la **sanción** pecuniaria de (...) euros” > “(...) euroko diru-**zehapena** ezartzen zaio alderdi aurkaratzaileari”
- “Los gastos derivados de la publicación del **acuerdo sancionador** serán por cuenta de quienes hayan sido declarados responsables del mismo” > “**Zehatze-erabaki**aren argitalpena dela-eta sortutako gastuak, zehazki, arau-haustearen erantzuleak jo direnek ordaindu beharko dituzte”

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)